

# Arakil bailararen egoeraren diagnostikoa egiteko egindako galdetegiaren emaitzak

**Arakilgo Udala**

2021eko otsailaren 20an

# 1. Sarrera

Arakil Iruñeko merindadean dagoen udalerrri bat da eta 12 kontzeju independentez osatuta dago. 1857ra arte kontzejuak lehenago berezko udalerrria izan zuten baina urte horretan batu egin ziren: Aizkorbe, Egiarreta, Ekai, Errotz, Etxarren, Etxeberri, Ihabar, Irurtzun (1991n berriro bereizi zena), Izurdiaga, Murgindueta, Satrustegi, Urritzola eta Zuhatzu. Hiriberri eta Itsasperri ere badaude udalerrri honetan.

Arakilen identitate historikoak bere antzinako hiriburuan du oinarria, Irurtzunen, hain zuzen. Arakilgo hiri sistema Irurtzunen inguruan egituratzen da, bera baita ibarreko gune nagusia biztanleriaren, ekipamenduen, horniduren eta industrien ikuspegitik, eta bere kokapena estrategikoa baita komunikazioei begira.

Irurtzongo Udala Arakiletik banantzeak desoreka ekarri zien ibarreko gainontzeko herriei, eta gaur egun oraindik ere arazo horrek bere hartan dirau. Egun udalerrria osatzen duten kontzejuetatik bakar batek ere ez du gaitasunik jarduerak zentralizatu eta ondorioz udalerriko hiriburu bihurtzeko. Arakiletik banandu arte, Irurtzun zen erdigunea; izan ere, duen biztanle eta industria kopuru handiak ekarri du hainbat zerbitzu izatea, gaur egun udalerrria osatzen duten herri txikiak eskuraezinak direnak. Horrek, beraz, zerbitzuak Irurtzunen zentralizatuta edukitzea eta bailarako biztanleek bertara jo behar izatea ekarri du.

Era berean, Irurtzun eta Arakil, bien artean harreman estuak izatea eragin duten errealitate geografikoa, historikoa, soziala eta ekonomikoa komunak eduki arren bi udal independente dira.

Biztanleriari dagokionez, inguruko herrietan ez bezala, biztanle kopurua handitzen joan da azken urteetan, eta gaur egun, 1000 biztanle inguru ditu bailarak. Horietatik asko adinekoak dira.

## 2. Prozesuaren helburuak

### 2.1. HELBURU OROKORRA

Proiektu honen xedea herritarren parte-hartzean oinarria izango duen eta Arakilgo egoera eta beharrak ezagutzeko balioko duen diagnostikoa egiteko partaidetza prozesua diseinatzea eta garatzea da. Hausnarketa-prozesu honek bailara-ereduaren inguruko gogoeta partekatua bideratu eta etorkizunerako erronkak identifikatzeko abiapuntu gisa balioko du.

## 2.2. AZPI-HELBURUAK

- Herritarrak ahaldundu eta inplikatzeari Arakilen intereseko gaien inguruko diagnostikoa (parte-hartzaileen pertzepzio subjektiboetan oinarritutakoa nagusiki) partekatua egin eta beharrei irtenbidea elkarrekin eraikitzeko
- Bailara-ereduaren inguruan hausnartzen hasi eta herritarrek bailararekiko atxikimendua indartzeko urratsak ematea
- Belaunaldien arteko elkarlana sustatzea
- Herritarren partaidetzaren aldeko heziketa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta komunikazioa bideratzea

# 3. Galdetegiaren emaitzak

## 3.1. GALDETEGIA IRITZIAK JASOTZEKO

Diagnostikoa herriaren benetako egoera zein den erakusten duen erradiografia edo eskala handiko argazkia da. Diagnostikoa osatzeko bi motako datuekin lan egingo dugu: kuantitatiboak eta kualitatiboak. Datu hauek biltzeko hasteko herritar eta eragileen pertzepzioak jaso ditugu. Herritar eta eragileen pertzepzioak jasotzeko galdetegia eta aurrera begira 2021ean herritarrekin parte hartze presentzialak bideratuko dira.

Hori guztia antolatzeko Talde Eragilearekin 2. bilera egin ditugu. Aztergaien proposamena Emunek prestatuko du aurretik eta Talde Eragilean adostuko dira diagnostikoa egiteko prozedura eta lan banaketa. Galdetegia Talde eragilean osatu da.

Talde eragilearen osaketa: Udaleko 2 ordezkari, Hiriberriko eta Izurdiagako eragileak eta Emuneko ordezkaria.

## 3.2. METODOLOGIA

Metodologia

Galdetegia prestatu da eta ondoren erantzun ahal izateko 2 modu egon dira, batetik paperezko formatuan idatziz eta bestetik google forms plataforma erabilita, online erantzuteko aukera ere eman da.

### 3.3. GALDETEGIAREN EMAITZAK

Guztira 323 galdetegi jaso dira idatziz 94 eta online 229 galdetegia. Hala ere, aipatu behar da, 323 galdetegi horietatik, 30 Arakil bizi ez diren pertsonak direla. Talde eragilean garbi ikusi zen herrian erroldatuta daudenei aukera eskaintzeaz gain, herrira etortzen direnei ere eman behar zitzaiea.

Datuak bere osotasunean hartzen baldin baditugu, herritarren %38 da. Talde eragilean jarritako helburua bete egin da, 300 inkesta lortzera iritsi nahi zen eta hori gainditu egin da. Horretan eragin zuzena izan du herri guztietara zabaldutako bideo laburrak eta talde eragileko partaideek egindako lanak.

Arakilen 978 herritar daude erroldatuta. Galdetegia 16 urtetik gorako herritarrek erantzun ahal izan dute, 844 dira guztira.


Herriko biztanleriaren erroldari begiratuta %45, 35-65 adin tartekoa da, horren ondoren 65 urtetik gorakoak dira (%20)

Hala ere aipatu behar da, galdetegia erantzun duten artean atal batzuk bete ez dituztenak badaudela baina guztiak kontuan hartu ditugu. Galdetegiak erabat anonimoak izan dira.

Jarraian galdetegiko atal ezberdinetan jasotako erantzunak eman eta aztertzen joango gara.

#### GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN ADINA


Aipatu behar da galdetegiren batean galderaren bat edo beste erantzunik jaso gabe geratu dira



Galdetegia erantzun duten gehienak, 35-65 adin tartekoak dira %58 (186 herritar) eta jarraian %17 65 urtetik gorakoak. Gutxiago dira 25-34 urte bitartekoak 46 eta beste 32 pertsona 16-24 urte bitartekoak.

Erroldari begiratzen badiogu adin tarte handiena 35-65 urte bitartekoa da %45.


## HERRIAN BIZI ETA MAIZTASUNA



Erantzun dutenen %90 herrian bizi dira eta % 10 ez dira Arakilen bizi batzuetan. Maiztasuna galdetu zaie eta hor ikusten da %16 asteburuetan egoten dela herrian. Zenbakitan 33 dira herrian asteburuetan bakarrik bizi direnak eta horietatik gehienak 12 Hiriberri Arakilen bizi direnak dira. Ihabarren beste 6 eta jarraian beste batzuk ere badaude beste hiruna Aizkorbe, Ekai eta Errotz.


Maiztasunaren datua asteburuetakoa, herrian bizi direnen portzentajearekin nahiko parean dator.

## SEXUA



Sexuari dagokionez ez dago alde handirik emakumezko eta gizonezkoen artean, %51 eta %48 hurrenez hurren. %1 ez binarioa kategorian sartu du bere burua.



## HERRIKA JASOTAKO ERANTZUNAK



Erantzunak Arakilgo herri guztietatik jaso dira, gehiago edo gutxiago herri tamainaren arabera.

- Aizkorbe 7 erantzun (errolatutakoaren % 46)
- Egiarreta 22 erantzun (errolatutakoaren %33)
- Ekai 13 erantzun (errolatutakoaren %33)
- Errotz 16 erantzun (errolatutakoaren %27)
- Etxarren 26 erantzun (errolatutakoaren %19)
- Etxeberri 20 erantzun (errolatutakoaren %40)
- Hiriberri Arakil 59 erantzun (errolatutakoaren %51)
- Ihabar 47 erantzun (errolatutakoaren %41)
- Izurdiaga 62 erantzun (errolatutakoaren %40)
- Satrustegi 22 erantzun (errolatutakoaren %50)
- Urritzola 11 erantzun (errolatutakoaren %57)
- Zuhatsu 16 erantzun (errolatutakoaren %29)
- Hutsik daudenak, herririk jarri ez dutenak 2 dira

## GUSTURA ARAKILEN ETA GUSTURA ARAKILGO ZERBITZUEKIN





Arakilen gustura bizi diren galdetu zaie eta %98aren erantzuna baiezkoa da, %1ak ez du erantzun edo ez daude gustura (zenbaki absolututan 8 lagun dira).

Arakilgo zerbitzuen inguruan galdetzen zaienean ordea, ehunekoa jaitsi egiten da %69 dago gustura. Aldiz %24 ez dago gustura eta %7ak ez du ezer erantzun.

Zerbitzuekin gustura ez daudenen artean 46 gizonezko eta 33 emakumezko daude. Adinari erreparatuta 35-65 urte artekoak dira gehienak %55a eta herriekin jarraituz Hiriberrin eta Ihabarren 10 lagun eta Izurdiagan 15 lagun dira gustura ez daudela esaten dutenak.

## BIZIMODUA BAILARAN EGITEA ETA BAILARA SENTIPENA



Bizimodua bailaran bertan egiten duten galdetuta, %44ak baietz erantzun du eta %37ak gehienetan. Gutxitan egiten dutenena %17koa da

Bailara sentipenaren inguruan ere galdetu zaie. %73ak (236 herritarrek) badaukala erantzun du eta %26ak ez dauka (83 lagun). Bailara sentipena ez dutenak 68 lagun, herrietan egunero bizi direnak dira eta beste 15 asteburuetan edo astean zehar Arakilen bizi direnak. Sexuari dagokionez ez dago alderik eta herrika Ihabarren daude herri sentipenik ez dutela esaten duten gehienak 19 eta jarraian datoz Izurdiaga eta Etxarren 15 eta 12rekin.

## HERRIAN EDO BAILARAN FALTAN BOTATZEN DIREN ZERBITZUAK, EKINTZAK EDO PROIEKTUAK.

Galdera ireki honetan erantzun asko jaso dira, 313 erantzun ezberdin eta kasu batzuetan ideia bat baino gehiago ere adierazi dira. Horietako batzuk errepikatu dira eta hona hemen laburpena:


- **Etxebizitzak beharraren** inguruan ideia asko jaso dira atal honetan nahiz beste batzuetan.
  - Gazteak bailaran geratzeko
  - Etxebizitza aukera ezberdinak bilatu behar dira( alokatzea, erostea, zaharberritzea, babes ofizialeko etxeak, cohosusinak, aukera guztiei irekita egon beharko genuke.
  - Gazteek independizatzeko aukera behar dute
  - Etxebizitzen arloan, herrietan hutsik eta egoera txarrean dauden etxeak ere aipatzen dira (arriskua da egoera horretan edukitzea, zerbait egin beharra eta aukera bat izan daiteke)
- **Interneterako sarbide hobe, zuntz optikoa.** Asko errepikatu den eskaera da, adin ezberdinetako pertsonen artean gainera.
- Zaborren kudeaketa hobe. Itsasperrin kontenedoreak kendu, bilketa sistema, hobeto erreziklatzea, herriguneetan kontenedore gehiago jartzea.
- Herriko mantentze lanetan hobetzea, garbiketa udan bakarrik egiten dela aipatzen da galdetegian.
- **Garraio publiko hobe izatea** (Irurtzunekin eta Iruñearekin komunikazio hobeak) Trenak geltokia izatea Arakilen. Zerbitzu publiko hauek Irurtzunekin batera partekatzea. Maiztasun handiagoarekin izatea autobusak
- **Gela balioanitza** behar da. Herritar askok egin dute eskaera hau, Kultur etxea, erakusketa gela, antzezlanak, hitzaldiak, kontzertuak eskainiko dituen gunea. liburutegia. Ekintza guztiak leku berean egingo liratekeen gune bat izan beharko luke.
  - Kultur etxea

- Ekintza guztiak leku berean bateratzea
- Hizkuntzaren inguruan ere aipamen laburren bat egiten da, (Udaletik bidaltzen den informazioa gaztelaniaz ere egotea)
- **0-3 urteko haurrentzat zerbitzuak**
  - Zaintza eta lan uztartzeko aukera moduan
- Gazteei begirako laguntza gehiago (ez da zehazten zein laguntza mota)
- **Adinekoei begirako zerbitzu** gehiago (adinekoen egoitza, eguneko zentroa, jubilatuen etxea)
- **Ingurune natural paregabea** kokatuta dago Arakil, horiek ezagutzeko aukera izatea. Senderismoa praktikatzeko ibilbideak jartzea bailaran.
  
- **Kultur ekintza gehiago**, esparru asko aipatzen dira (kontzertuak, zinema, liburu aurkezpenak, bertso saioak, sormena sustatzeko ekimenak gai ezberdinen inguruko ikastaroak (sukaldaritza, eskulanak. Kultur ekintza hauek sustatzeko gela balioanitza jartzeko aukera aipatzen da baina aldi berean herrietan dauden baliabideak aprobetxatzea, adibidez elizak.
  - Kultur ekintza horiek bateratuak izatea, herritarren arteko harremanak sustatzeko.
  - Adin ezberdinetako jendearen arteko topaketak egitea
  -
  
- **Gobernantzaren** inguruan ere jaso dira hainbat iritzi jaso dira, oso ikuspegi ezberdinak ikusten dira
  - Irurtzuneekin mankomunatu zerbitzuak
  - **Arakil bailarako Batzorde iraunkorra**(herrietako alkateak ahotsa eta bozka) osatzea Arakilgo Udalarekin batera.
  - **Kontzejuetako ordezkariak** ez dute herritarrekin harremanik.
  - Udaleko tramiteetarako bizkortasuna
  - Zerbitzuak Arakil bailarako herrietan jarri eta ez Irurtzunen.
  - Udala bera Irurtzundik mugitzea
  - Kontzejuetako herritarren artean ere harreman gutxi dago.
  - Zerbitzurik faltan botatzen ez duten bakarren bat edo beste badago edo errealitatearen inguruko hausnarketa egiten dutenak (ezinezkoa da 12 herri izan eta guztien artean 1000 biztanle izanda, denok zerbitzu guztiak izatea).
  
- Zerbitzuen artean denda, botika aipatzen dira
- Kirol instalazioen inguruan ere aipamen asko eta kasu hauetan herrietako frontoien ingurukoak jaso dira. Aukera moduan ikusten dira hainbat ekitaldiak antolatzeke, jolaserako. Herriren batzuetan estaltzeko aukera ere aipatzen da.
- Aisialdiarekin lotutako ekintzak, mendi irteerak, kirola, eskursioak, ingurua hobeto ezagutzeko irteerak...


Orokorrean bailara osoari begirako zerbitzuak dira baina kasu batzuetan herri bakoitzari begirakoak ere aipatzen dira.

## BAILARAN ZERBITZU GEHIAGO (DENDA, FARMAZIA...) EGONGO BALIRA ERABILIKO ZENITUZKE?

Galdera honen erantzuna baiezkoa izan da gehienen aldetik, %88ak baietz esan du (284 herritarrek, %11ak ezetz erantzun du. Herri ezberdinetatik jaso dira erantzun hauek Izurdiaga, Ihabar eta Hiriberrin daude 6na ezezko.



## UDALA IRURTZUNDIK ARAKIILDO BESTE LEKU BATERA ERAMATEA




Udala Arakilgo beste leku batera eramango luketen galdetu zaie eta %77ak (247 herritarrek) ez mugitzearen aldekoak dira. Aldiz, beste %21 Udala mugitzearen aldekoak dira 69 herritar. Hiriberrri, Ihabar eta Izurdiagan bizi direnak dira aldatzearen aldekoak diren gehienak; Ihabarren 17, Hiberrin 14 eta Izurdiagan 12.

Aldatzearen alde daudenei, zein lekutan kokatuko luketen adierazteko aukera eman zaie eta erantzunak hauek izan dira:

- Arakilgo herri batera 21 lagunek, izenik zehaztu gabe. Atal honetan bakarren batek aipatzen du herririk handiena, irisgarriena eta erroldatu kopuru handiena duen herria izan beharko lukeela eta baldintza minimo batzuk bete beharko lituzkeela.
- Hiriberrira 18 lagunek nahiko lukete
- Etxarren 9 lagunek
- Itsasperri 8 lagunek
- Izurdiaga 10 lagunek. Batek aipatu du Izurdiagako udal eraikinak oso baldintza onak dituela, irisgarria dela, parkinga duela ...
- Satrustegiko Jauregia 8 lagunek
- Ihabar 3 lagunek
- Zuhatsu 2 lagunek
- Egiarreta bakarrik

## BAILARA OSOARI ZERBITZUAK EMATEKO ESPAZIOEN (ERABILERA ANITZETARAKO GELA, KULTUR ETXEA...) BEHARRA



Bailara osoari begira zerbitzuak emateko espazioen beharrik dagoen galdetu da eta %74ak (240 herritarrek) baietz erantzun du eta %22ak (71 lagunek) ezetz. Ezezkoa erantzun duten gehienak gizonezkoak dira (%60) eta % 40 emakumezkoak. Adinari erreparatuta 35-65 adin

tartekoak dira gehienak eta egunero bertan bizi direnak. Hala ere aipatu asteburuetan bailarara etortzen diren 12 lagunek ere , esan dutela ez dela zerbitzu gehiago behar.

Herrika lhabarren daude ezezko gehienak (12) eta jarraian Hiriberrin (10) eta Izurdiagan (9).

## BAILARA MAILAKO PROIEKTUREN BEHARRA



Herritarren %91k ikusten du herri mailako proiektuen beharra. Ezezkoa 22 lagunen bakarrik eman dute.

Galdera berean eta baiezkoa erantzun badute, zerbitzu batzuen artean aukeratzeko edo berriren bat gehitzeko aukera eman zaie.

Erantzun asko jaso dira, guztira 292 erantzun galdera honetan eta jarraian emaitza:

0-haurrentzat espazioak	120
Kultur etxea	102
Pertsona adinduentzat	94
Denda	76
Enpresen hazitegia	51
Gaztelekua	47
Emakumeen txokoa	46
Jubilatuen etxea	38
Emakumeen txokoa	32
Erakusketa aretoa	26
Eguneko zentroa	7
Etxebizitzen ingurukoak	6
Kiroldegia	2
RoKodromoa	1
Balomano pista	1
Frontoia	1
Adinekoen erresidentzia	1

## ETXEBIZITZA EROSTEKO, ALOKATZEKO, ZAHARBERRITZEKO ASMOA

Etxebizitza erosteko, alokatzeko, zaharberritzeko nahiz beste aukera baten beharraz ere galdetu da galdetegian eta %68ak ezetz erantzun du (219 herritarrek) eta %30ak(97 lagunek baietz erantzun dute. Arreta baietza eman duten pertsona horiengan jarri dugu adinean eta herri bakoitzean jasotako erantzunetan.

Jarraian herriz herriko azterketa agertzen da:


- **Aizkorbe:** 3 herritarrek adierazi dute etxebizitza beharra, 2k erosteko eta beste batek eraikuntza egitea. Baiezkoa eman dutenak gutxitan, asteburuetan egoten direnak dira eta 35-65 urte bitartekoak.
- **Egiarreta:** 4 baiezko eta horietatik 3k zaharberritzea eta batek etxebizitza kooperatiba moduan egiteko asmoa.
- **Ekain:** 2 lagunek zaharberritu nahi dute gehienetan edo gutxitan egoten dira herrian eta 35-65 urte bitartekoak dira.
- **Errotz:** 2 lagunek zaharberritu nahi dute, gehienetan bertan egoten dira eta 35-65 urte bitartekoak dira
- **Ettxarren:** 7 lagunek baietza eman dute eta adin multzo ezberdinetakoak dira. 6 lagunek lehen aukera moduan zaharberritzea, 4k aukera bakar moduan eta beste hiruk aukera ezberdinak.
- **Etxeberrri:** 4 herritarrek dute etxebizitza beharra, 3k zaharberritu egin nahi dute eta batek erosi. Maiztasun ezberdinarekin egoten dira herrian eta adinari dagokionez 35-65 urte bitartekoak hiru eta 25-34 adin tartekoa 1. .
- **Hiriberrri:** bailara osoko behar handiena bertan jaso da, 24 herritarrek eman dute baiezkoa. 6k zaharberritzea aukera bakar moduan, 3k erosi aukera bakar moduan eta beste 10ek erostea lehen aukera moduan baina gero zaharberritzea, alokatzea eta kooperatiba moduan ere jarri dute. Alokairuan etxebizitza 2 herritarrek hartuko lukete. Azkenik terrenoa erosi eta eraiki nahi duen bat ere badago. Gehienak 16-24 eta 25-34 urte bitartekoak dira eta gehienak bertan bizi direnak dira.
- **Ihobar:** 10 lagunek adierazi dute interesa. Zaharberritzea bakarrik 3 lagunek eta lehen aukera moduan beste batek, alokatu 2 herritarrek eta erosi bakarrik batek eta lehen aukera moduan 3k eta gero zaharberritzea. Adin tarteari begiratzen badiogu 35-65 urte bitartekoak eta beti edo gehienetan herrian daudenak dira gehienak.
- **Izurdiaga:** Hiriberriren ondoren beharrik handiena dagoen herria da 23 lagunek adierazi dute etxebizitza beharra eta gehienak 16-24 eta 25-34 urte bitartekoak eta beti edo gehienetan bertan bizi dira. Beharrak honako hauek: 6 lagunek eraikina egitea, 3k erostea aukera bakar moduan, 8k zaharberritu aukera bakar moduan, alokatu aukera bakarra batek. Lehena aukera moduan erostea baina beste aukera batzuekin batera beste 3 eta azkenik etxebizitza kooperatiban batek bakarrik.
- **Satrustegi:** 9 lagunek nahiko lukete etxebizitza, beti edo gehienetan bizi direnak eta 16-24 eta 35-65 adin tartekoak dira. Aukerak hauek eskatzen dituzte: zaharberritzea bakarrik 2k, eta 1. aukera moduan beste batek, erostea 1. aukera moduan 4k eta gero beste aukera guztiak eta azkenik alokatzea bakarrik 1ek. Batek ez du ezer adierazi.

- **Urritzola:** 4 lagunek dute adierazi dute beharra, erosteko 1. aukera moduan 3k eta erostea aukera bakar moduan 1ek.
- **Zuhatzu:** 5 lagunek dute etxebizitza beharra eta jasotako aukerak hauek: 2k alokatu aukera bakarra, erosteko aukera 2k eta zaharberritzea batek


Aizkorpe	Zaharberritzea bakarrik	Erostea bakarrik	Alokatu	Kooperatiba	Erosi Aukera + 1.	Zaharb. Aukera + 1.	Eraikina egitea
Aizkorbe		2					1
Egiarreta	3			1			
Ekai	2						
Errotz	2						
Etxarren	4				1	2	
Etxeberri	3	1					
Hiriberri	6	3	2		10	1	1 + 1 ahal dena)
Ihabar	3	1	2		3	1	
Izurdiaga	8	3	1	2	3		6
Satrustegi	2		1		4	1	
Urritzola	1	3					
Zuhatzu			2		2 alokatu 2. aukera		1ek ezer ez
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>13</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>21</b>	<b>5</b>	<b>8</b>

## INGURUMENeko KUTSADURAREKIN (ARAKIL IBAIA, LABORANTZAK SORTUTAKO KUTSADURA, MENDIA...) KEZKA

Ingurumenaren inguruan kezkatuta dauden ere galdetu zaie arakildarrei eta adibide moduan Arakil ibaia, laborantzak sortutako kutsadura jarri dira eta inkestaren arabera gaiaren inguruan ikaragarri kezkatuta edo kezka handia du %85ak (275 herritarrek) eta gero laborantza ereduaren inguruan galdetu denean, agerian geratu da kezka hori eta horrekin lotutako aipamenak jaso dira. Aldiz, %15ak kezka txikia dauka.



## BAILARAKO LABORANTZA EREDUAREKIN ADOSTASUNA



Laborantza ereduaren inguruan galdetu zaienean, %58ak ados dagoela esan du eta %37ak ezetz. Jarraian laborantzarekin lotuta garatu beharreko proiektuen inguruan galdetu zaie.


## LABORANTZAREKIN LOTUTA GARATU BEHARREKO PROIEKTUAK

- **Abeltzainek sortzen dituzten hondakinei**, purinen kudeaketari, ustiapen handien sortzen dutenari jarraipen estuagoa egitea. Gai honen inguruan aipamen asko daude
- 
- **Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa** sustatzea (landaketak modu naturalean, eskolako jantokia produktu ekologikoekin
- Mendiko bideetan hobekuntzak egitea, mendietako pistak zaindu.
- Hidrologia
- Hondakinen kudeaketa (hondakinen bereizketan indar handiagoa jartzea)
- Kontzientziazio lanak
  - Ingurumenaren inguruko informazioa
  - Kontsumo eredu kooperatiboak
  - Kilometro zeroaren gaiari garrantzia ematea
- Ekoizle lokalen eta kontsumitzaileen artean km 0ekin lotutako proiektuak martxan jartzea
- **Nekazaritza txikia sustatu**
  - Nekazari eta abeltzain txikien hobesten dituzten proiektuak martxan jartzea
  - Nekazari txikiei begira merkatu txikiak sustatzea
  - Laguntza handiagoak sektoreari
- Hurbileko produktu ekologikoekin salmenta kooperatiba sortu eta sustatzea.
- Bertako produktuekin osatutako denda
- **Gazteak laborantzan sartzeari** baina eskala txikian.
  - Nekazaritzan abeltzaintzan hasi nahi dutenentzat lurrak prestatu,
  - Lursailak lortzeko aukera ikusten da,
  - lanpostuak sortzeko modu bat da.
  - Lur komunalak baserritar berrientzat
- Komunalen kudeaketa nekazaritza eta abeltzaintza ekologiko jasangarrian hasi nahi dutenentzat
- Ustiapen txikiak bultzatzea, granja txikiak
- **Publiko probatuaren arteko lankidetzari** nekazaritza arloko ekintzaitasuna aztertzeko eta nekazaritza produktuak sortzen dituzten enpresak sortzeko.
- Baratze komunalak
- Ustiapen handirik ez egotea aipatzen da alde batetik baina aldi berean ustialeku handien zabalkundea erraztu egin beharko litzatekeela aipatzen da


- **Komunalak aprobetxatu** eta mendiak garbitu.
- Eredu jasagarria eta **ekonomia zirkularrean** oinarritua.
- Bailarako lursailen kutsadura maila azertu egin beharko litzateke.
- Ibaiaren garbiketa eta kontrol handiagoa
  - Errekak garbitzeko egunak jarri
  - Eskoletan sentsibilizazio lanak.
- Nekazaritza estentsiboa sustatu eta ustiapen handiei jarraipen estuagoa.
- Ingurumenarekin errespetuzkoak diren proiektuak
- Jarduera hau bailarako motor ekonomikoa izan da eta gaur egun oso gutxi dira honetan lan egiten dutenak. Ez dago belaunaldiko erreleborik.
- Badago sektore honekin lotutako nahikoa jarduera badaudela esaten dutenak eta beste batzuk sustatu beharko liratekeela esaten dutenak ere, merkataritza esate baterako
- Mendia zaindu, mendira igotzen diren 4x4ak, mendia garbitu.

## AZPIEGITURA HANDIEK DUTEN ERAGINA

Herrian azpiegitura handiekin lotuta aurreikusten diren proiektuen inguruan ere galdetu zaie eta horien artean daude AHT, goi tentsioko lineak... eta %81ak kezka ikaragarria edo handia dauka eta %18 ez dago kezkatuta.



## LANA ARAKILEN



Galdetegian Arakilen ala Arakiletik kanpo lan egiten duten galdetu zaie eta erantzunen arabera %81ak Arakildik kanpo lan egiten du. Izurdiagan dago bailaran bertan lan egiten duen pertsona kopuru handiena, 11 lagun. Arakilen lan egiten duten gehienak 35-65 urte bitartekoak dira.

## LAN MUNDUAREKIN LOTUTA, ZEIN ARLO SUSTATUKO ZENITUZKE

Lan munduarekin lotua, bailaran bultzatu beharreko esparruen inguruan ere galdetu zaie. esparru asko aipatu dira.


Honako hauek dira proposatutakoak

- **Enpresa berriak ekartzea** eskualdera,
  - gazteentzako lana, eskualdekoak kanpora joaten dira
  - eskualde mailako lan-poltsak sortu
  - eskualdeko enpresa berriak sortzeko gunea sortzea
  - enpresa hazitegiak
  - autonomoentzat espazioak sortzea
  - enpresa berriak erakartzea eskualdera
  - Industria poligonoa, Aristrain indartzea
  - Enpresak eskualdean kokatzeko erraztasunak ematea
  - Negozio txikiak sustatu ( bizikleta tailerra...)
  - Satrustegin dagoen Nafarroako Gobernuko eraikinari erabilera eman
  - Ingurumenarekin errespetua izango duten enpresak.

- Herrian kokatzen diren enpresak eskualdeko langileak hartzea behartzea
- Gaur egun egiten ari den zereal fabrika kontuan hartuz, beste batzuk sortzea
- Sortzen ari garen ereduak ez da aproposa, eskualde, herri bakoitzean industriaguneak eta Poligonoak sortzen. Eskualde ikuspegia behar da.
  - Administrazioek azterketak egitea bultzatu beharreko sektoreak zeintzuk diren identifikatzeko
  - Sakanak kokapen pribilegiatua
- Ludotekak, haur eskolak sortzea
- Osasun zerbitzuak sustatzea
- **Turismoa sustatzea**, honekin lotuta aipamen asko egiten dira
  - Turismo kooperatibak
  - Turismo eredu sostengarria
  - Agroekologia
  - Leku pribilegiatu batean bizi gara, aberastasun natural handia, inbertsio gutxiarekin naturarekin lotuko turismoa bultzatzea
  - Herrietan hutsik dauden etxe handiak turismoa sustatzeko zaharberritzea
  - Bisita gidatuak eskualdean
- Energia berriztagarriekin lotutako proiektuak
- Nekazaritzarekin lotutako egitasmoak,
  - Denda
  - Nekazaritza ekologikoa
  - Bertako produktuak sortzeko enpresak
- Adinekoentzat zerbitzuak emateko proiektuak sortzea,
  - zaharren egoitza adibidez, tamaina txikikoa
  - Bakarrik bizi direnentzat prestatutako janaria
- Abeltzaintzan eta nekazaritzan lanean hasteko erreztasunak ematea
  - Granja ekologikoak
- Ekintzailetasuna sustatu. Mikorena enpresen zentro moduan
- Artisauentzat espazioak sortzea, artisautza merkatuak
- Ofizioen falta handia dago
  - Iturginak
  - Igeltseroak
  - Elektrikariak

- **Merkataritzarekin** lotutako zerbitzuak
  - Supermerkatua
  - Denda
  - Okindegia
  - Ostalaritza zerbitzuak
- **Komunitate osoarentzat zentro integratzailea**, lanpostuak sortzeko ( umeentzat, gazteentzat, adinekoentzat...
- Eskualdeko herritarrak kontratatzea bideak, mendiak eta instalazioak garbitzeko,
- Eskolatik ikasketak eta formazioa sustatu eta ez hainbeste jarduera ludiko eta kirolekoak

## ADINDUN PERTSONENTZAT ZERBITZUEN BEHARRA



Galdetegia erantzun dutenen %74ak adinekoentzat zerbitzu gehiagoren beharra ikusten du.


Adinekoei begira planteatzen diren zerbitzuak honako hauek izan dira:

- **Bakarrrik dauden pertsoneri laguntza**
  - Berbalagunak
  - Erosketak egiteko laguntzak
  - Etxez etxeko zerbitzua
  - Zaintza etxean
  - Botikak banatzea
  - Medikarengana joateko
- Kirola egiteko eta etxetik irteteko proiektuak, aisialdiarekin lotutako ekintzak (txangoak, jolasak...)

- Elkartzeko tokiak prestatu, iraganaz eta etorkizunaz hitz egiteko.
- **Adinekoentzako ekintzak prestatu** (tailerrak, ikastaroak, ariketa fisikoa, tertuliak, memoriarako tailerrak, zinema, aspaldiko pelikulak ikusteko, dantza saioak, kontzertuak ...)
- Eguneko zentroa, honen inguruan aipamen asko
- Nagusien mugimendua ahalbidetuko duen zerbitzua (autobusa, taxia..)
- Etxetik gehiago ateratzeko proiektuak sustatzea
- **Jubilatu elkarte** bat martxan jartzea
- **Zaharren egoitza egitea**
- Etxe komunitarioak egitea
- Adinekoen artean harreman handiagoa izatea
- Bakardadeari aurre egiteko guneak sustatzea, gero eta bakarrago gaude
  - Bakardadeak emozioetan eragin zuzena dauka
  - Bakardadea eramangarriagoa izateko hitzaldiak
- Atsedenaldi eta konpainia zerbitzua.
- Medikuzko zerbitzu eta arreta pertsonalizatua
- Hilean behin herritik pasako den banketxe mugikorra
- Gizarte laguntzailea
- Adineko pertsonak bakarrik bizitzeko moduan ez daudenean, bailaran bertan geratzeko aukera izatea etxean bertan laguntza jasoz edo prestatutako egoitza batean.
- Eguneko ospitalea
- Irakurketa lantegiak, estimulazio kognitiborako ikastaroak
- Pisu tutelatuak
- Adinekoentzako zerbitzuak Sakana mailan antolatzea
- Telefono bidezko arreta Udalean gaztelaniaz
- Hirugarren adinekoentzat sexualitatea
- Menpekotasunaren inguruan informazioa ematea
- Irurtzunerako joateko garraioa
- Kultur ekintzak adinekoentzat
- Hirugarren adinekoen korua sustatu

Bakardadearen gaiaren inguruan ere galdetu da eta erantzun dutenen artean %91ak (290 herritar) landu beharreko gai moduan ikusten du ados edo guztiz ados agertu dira eta %9ak erdizka atala markatu du eta 5 pertsonak ez dute landu beharreko gaitzat hartzen.

## GAZTEI BEGIRAKO BULTZATU ZERBITZUEN BEHARRA



Arakil bailarako gazteei begira, nahikoa zerbitzu dauden galdetu zaie eta %65ak ezezkoa erantzun du, %25ak nahikoa zerbitzu dituztela esaten du eta %10ak ez du erantzun.


Gazteei begira faltan botatzen diren zerbitzuak honako hauek dira:

- **Etxebizitza berriak egitea**
  - Ez dago etxerik salgai edo alokairuan
  - Etxebizitza proiektua sustatu, etxeak berritzeko., alokatzeko
  - Etxebizitza lortzeko aholkularitza eta laguntza zerbitzua
- **Gaztetxokoa** gazteentzat
  - Ekintzak bertatik bideratzeko
  - Elkargunea sortu
  - Adin batean ez dute nora joanik izaten, bajera eta tabernetarako gaztegiak izaten dira eta behar dute elkargune bat
  - Espazio berezi bat sortzea gazteentzat, beraien jarduerak eta ekintzak aurrera eramateko
  - Gazteek beraiek kudeatutako gune bat izatea
- **Kultur eskaintza** zabalagoa
  - Antzerkiak
  - Kontzertuak
  - Aisialdi osasuntsua
  - Antzerki taldea
  - Ipuin kontaketa
  - Zirkua

- Herrian ez dago gazteei begirako ekintzarik eta horregatik atera egin behar izaten dugu beste herri batzuetara.
- Eskulanak
- **Garraio zerbitzu hobea**
- Kirolarekin eta formakuntza ikastaroa, ekintza autogestionatuak izatea
  - Atletismoa, zumba gimnasia ritmikoa
  - Kirol taldea
  - Leku estalia neguan kirola egiteko, polikiroldegiren bat esate baterako
  - Frontoi estaliak
- Gaztetxeak
- **Gazteei zuzendutako aholkularitza** (lan arloan, etxebizitzaren inguruan, drogomenpeketasuna, sexualitatea...)
- **Bailara osoko gazteen arteko harremanak** sustatzea
- Arakilgo historia eta bizipenak erakustea gazteei
- **Hezkuntza ez formaleko erakunde/talde bat martxan jartzea** (gaztetxoak elkarren artean ezagutzeko, lan aukerak sortzeko, euskara sustatzeko, balioak transmititzeko, bailara sentipena sustatzeko ...)
- Festa lokalak
  - Herriko festetarako aurrekontu handiagoak
- Gazteentzako zerbitzuak Irurtzunen daude
- Mendi trabesiak antolatzea
- Zuntza optikoaren inguruan aipamenen bat
- Kultur etxea
- Eskualde osoak bat egiteko guneren bat sortu
- Bailarako gazteei galdetu zeintzuk diren interesatzen zaizkien ekintzak
- Gazteen artean euskararen erabilera sustatzea
- **Komunitate osoarentzat zentro integratzailea**, ( umeentzat, gazteentzat, adinekoentzat...) solidaritatea, boluntarioak, ekologia, baratze komunitarioak, ingurumenari errespetua izatea lantzen diren gaiak)
- Eskolaz kanpoko jarduerak gazteentzat
- Interneterako sarbide aproposa izatea oso garrantzitsua.
- Herrien arteko **gazteen artean elkarbizitzarako** guneak sortzea, elkartzeko, hitz egiteko bestela bakoitzak bere aldera jotzen du.
  - Gazteak eskualdean geratzea sustatu behar dugu, motibatu egin behar dira, erakargarri egin gure herriak bertan geratzeko.
- Gaur egungo gazteei dena egina eman nahi zaie, **beraiek aldetik ere zerbait jarri** beharko dute.

- Herrietako elkarteak, beraien artean loturak sortzeko aukera izan daitezke.

## 0-12 URTE BITARTEKO FALTAN BOTATZEN DIREN ZERBITZUAK



Galdetegian 0-12 adin tarteko hurrei begira dauden zerbitzuen inguruan ere galdetu da eta %65ak ezezkoa erantzun du, ez daudela nahikoa zerbitzu. Aldiz, %34ak nahikoa zerbitzu dituztela esaten du eta %12ak ez du erantzun.

0-12 urteko hurrei begira, faltan botatzen diren zerbitzuak honako hauek dira:

- Aisialdirako zerbitzuak
- **0-3 urte bitarteko** haurreskola,
  - 0-3 urtekoentzako haurreskola baliteke asko izatea baina ba txoko bat, ordu batzuk zaintza zerbitzuekin
  - 0-3 urte bitarteko adin hori ahaztu samartuta dago
  - Eskaera baldin badago, zergatik ez haurreskola bat?
- Udalekuak opor garaietan, lana eta zaintza uztartu ahal izateko
  - Herriz herri ekintzak antolatzea, udako kanpaldiaren moduan
  - Udan egiten diren bezala, urtean zehar ere ekintzak antolatzea
- Jolas parkeak herri ezberdinetan
- **Eskolaz kanpoko jarduerak**,
  - Kirol eta beste esparru batzuetan eskaintza zabalagoa: atletismoa, gimnasia ritmikoa, dantza, scape room....
  - Hizkuntzak ikasteko aukera
  - Kulturarekin lotutako jarduerak
- Haurren artean elkar ezagutzeko ekintzak antolatzea

- Irurtzunen ez dauden beste kirol jarduerak sustatzea, bailaran zehar btt ibilbideak, udan piraguismoa, eskalada...
- **Naturarekin lotutako ekintzak** sustatzea, gauden lekuan egonda, mendi irteerak, bertako aberastasuna ezagutzea
- Herrietako frontoiak estaltzea non elkartua eta jolas egina eduki ahal izateko, batez ere negura begira.
- **Ludotekak**, eskolaz kanpoko jarduerak bultzatu ahal izateko
- Belaunaldi ezberdinen artean harreman estuagoa, horra bideratutako ekintzak.
- **Komunitate osoarentzat zentro integratzailea**, ( umeentzat, gazteentzat, adinekoentzat...) solidaritatea, boluntarioak, ekologia, baratze komunitarioak, ingurumenari errespetua izatea lantzen diren gaiak)
- Atakondoan kontzentratzen da dena eta nahikoa da.
- **Ekintza guztiak ele bietan** izatea, inor baztertu gabe
- **Herrien arten desoreka handiak** daude, batzuetan oso ume gutxi daude eta.
- Eskola Irurtzunen baldin badago, kanpo ekintza guztiak horrekin lotuta egon beharko dute.

## AZKENEKO GOGOETA

Galdetegiak oro har oso harrera ona izan du eta horrela adierazi da emandako erantzunetan, baliagarri izan den galdetu ondoren baietz erantzun baitute. Gehienak baiezkoa erantzutearekin nahikoa izan dute baina beste batzuk horren atzetik azalpen edo aldarrikapena edo besterik gabe nahi zuten zerbait gehitu dute.

Hona hemen laburpena:

- Erantzun guztiak ez dira bai eta ez erantzutekoak, batzuetan ez dakit atala jartzea ez legoke gaizki
- Etxebizitzaren gaia da gure bailaran arazorik larriena, irtenbide bat eman behar zaio. Etxeak husten ari dira eta bitartean gazteak Iruñera begira, hantxe dute independentzia aukera bakarra. Bukaeran gai hau batek baino gehiagok aipatu dute
- Galdeketa hutsean ez dadila geratu
- Garrantzitsua da herritarrei galdetzea eta prozesu hau martxan dagoen bitartean jendea horretan pentsatzen jartzea.
- Zaila da herrien arteko kohesioa lortzea
- Oso tresna baliagarria abiapuntu bezala erabiltzeko.
- Oso baliagarria, denon artean eraikitzeko modu bat da
- Eskertzekoa galdetzea da
- Harivenasako errepidea dena farolaz beteta, nola izan daiteke hori, aireportura zoazela ematen du. Inpaktu bisual ikaragarria.

- Baliagarria izango da iradokizunak kontuan hartzen badira eta gauzak mugitzen direla ikusten badugu.
- Dagoeneko bailarak dituen baliabideak kudeatzeko ideia berritzaileak planteatu benetako erabilgarritasuna emateko, adibidez Etxarrengo frontoia, Hiriberriko kultur aretoa materialekin hornitu, erreserbatzeko aukera eman.
- Udalari aipamena, lan ona eta aurrea, bikain ari zarete. Udalaren aldetik borondatea dagoela ikusten da.
- Bakoitzak ekintzak geure herrian nahi ditugu, gutxi mugitzen gara oso komodoak gara.
- Etxarren-Urritzolan egiten ari diren enpresa berria oso onuragarria izango da bailarako eta enpresa berriak kokatzea bultzatu beharko litzateke.
- Oso eraikitzailea, oso ideia ona egin izana.
- Bailarari bizia eman, handiagoa izatea ez da helburua, gure tamaina nahikoa da eta hori zaindu beharko genuke. Gure gazteek beraien bizitza proiektua bailaran egitea bilatu behar dugu. Etxebizitzak egiteko aukera izatea
- Zerbitutarako balio dezala eta ez bete eta ondo geratzeko.
- Mankomunitateari eskatu zabor edukiontzi gehiago jartzea
- Hezkuntza arloari eskatzen diot, eskolako ordutegian herri guztietako mugikortasun beharrei erantzuteko, gure herrietako gazteek mugitzeko arazo handiagoak dituzte.
- Kontzejuetan dauden pertsonak "ulertzen dut batzordeetan daudenei buruz ari direnak" herritarren iritzia kontuan hartzea, ez digute entzuten.
- Inkesta hau noiz behinka errepikatzea ez legoke gaizki
- Inkestak artxibo edo dokumentu batean ez geratzea
- Emaizak ikustea gustatuko litzaidake.
- Interneterako sarbide hobe izatearen inguruko aipamenak ere badaude atal honetan.
- Uraren kalitatea hobetzea (herrietara karearekin iristen da)
- Argi mozketak herri batzuetan eta horrek etxeetan sortzen dituzten kalteak.
- Arakilen bizi naizen herritar bat naiz eta bailaran lan egin nahi nuke, aisialdiko titulazioa daukat, honekin lotutako zerbitzuren bat irekitzeko aukera aztertzen ari naiz.
- Bailara bizirik mantendu nahi dugu lanpostuak sortu.
- Arakilel egunero ez bizi arren oso garrantzitsua iruditzen zait galdetzea
- Udalarentzat baliagarria izango da, indarrak zertan eta non jarri erabaki ahal izateko.
- Eraikuntzarekin lotutako arautegia aldatzea (2 solairu izatea behartzen gaitu eta horrek ekar dezake bailaran etxea ez egitea) Malgotu. Hau lagun dezentek aipatu dute atal honetan..
- Arakil ez da agertzen Covid 19aren estatistiketan, lotsagarria!!!
- Bailarako kultura aztertzeke ikerketak sustatzea
- Arakil ibaia aztertzea, mendietan espazio interesgarriak berreskuratzea
- Adinekoentzat zerbitzu gehiago izatea(zaharren egoitza bat esate baterako).

- 0-3 ureko haurrentzat eskola
- Auzolana sustatzea
- Irurtzunen ez dago pediatra zerbitzurik
- Teknologia berrietan oso atzeratuta geratzen ari gara.
- Sakana bere osotasunean kontuan hartu beharko litzateke.
- Honez gain parte hartze saioak antolatzea gaien inguruan eztabaidatzeko.
- Bailara zaindu, bertako landare autoktonoak landatzea sustatzea, sagarrondoak, gaztainondoak, hurrondoak...
- Mendi eta ibai bazterrak garbitzea
- Garraio publiko gehiago
- Ekintzailetasuna bultzatu
- Hiruhileko bakoitzean gaien inguruko bilerak antolatzea
- Udaleko telefonoa hartzerakoan gaztelaniaz hartzea, bailarari bakarrik ezin diogu begiratu, kanpora begiratu.
- Espazioak partekatu herrien artean
- Interes partikularrak gainditu eta ikuspegi zabalagoa izatea.